

# **“Txakolin Etxea” HORMA-PINTURAREN BIGARREN ZATIAREN PROIEKTURAKO ETA HORI AURRERA ERAMATEKO LEHIAKETA, LEIOAKO MENDIBILE JAUREGIA ELKARTEAK SUSTATUA.**

Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultateko Pintura Masterraren eta Leioako

Udalaren kolaborazioarekin.

Leioako Mendibile Jauregia Elkarteak lehiaketa honen deialdia egiten du, Elkarteak zehaztutako helburuak oinarri, arte eta kulturarik gazteena sustatzeko xedez.

## **1. PARTE HARTZAILEAK**

Lehiaketa hau irekita dago Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatean, 2016-2017 ikasturtean, matrikulatuta dauden ikasleentzat, baita aipatu fakultatean ikasketak amaitu dituztenentzat ere, oraindik ez badira hamar urte baino gehiago igaro ikasketak amaitu zituztenetik.

## **2. MODALITATEA**

Leioako Mendibile Jauregiko (Mendibile 42) behe hormetan pintatzeko den horma-irudi proiekturako lehiaketa irekia. Oinarriekin batera, hormen argazkiak doaz, zehaztuz hormairudia zein zonaldetan egin behar den.





### **3. GAIA**

Edizio honetarako gaia librea da, baina positiboki baloratuko da eraikina Bizkaiko TXAKOLIN ETXEA dela aintzat hartzea.

### **4. IZEN-EMATEAK**

Proiektuetan, nahitaez agertu behar da autorearen izena eta abizena. Lehiaketara aurkezten diren lanek, nahitaez, proiektuaren izenburu bat eduki behar dute identifikazioa errazteko.

Paperean aurkeztuko dira eta kopia edo eranskin bat gehitu ahalko da euskarri informatikoan. Lanekin batera, 2016-2017 ikasturteko matrikulari dagokion frogagiriaren fotokopia erantsiko da, edo hala badagokio, ikasketak amaitu izanaren ziurtagiria. Horrez gain, lehiaketarako inskripzio orria ere erantsi beharko da, lanak aurkezteko lekuan bete daitekeena. Gutun-azal itxian aurkeztu beharko dira biak, eta gutun-azalaren kanpoaldean, izenburua eta autorearen izen-abizenak jarri beharko dira, harremanetarako telefono zenbaki batekin.

Lanak euskarri zurrunean (kartoi-luma) bukatuta aurkeztu beharko dira, erakusgai jarriko diren moduan.

### **5. AURKEZTEKO EPEA**

Lanak aurkezteko epea 2016ko otsaliaren 13tik 24ra bitartekoa izango da, biak barne. Leioako Mendibile Jauregiko ordutegia lanak entregatzeko: asteartetik larunbatera, 12:00-13:00 eta 16:00-17:00. Horrez gain, Leioako UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko atezaindegian ere entregatu ahal izango dira lanak, astelehenetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara.

## **6. EPAIMAHAIA**

Bost pertsonen osatuta egongo da epaimahaia: UPV/EHUko ordezkariak, Mendibile Jauregia Elkarteko ordezkariak eta Leioako Udalekoak.

## **7. LANAK HAUTATZEA**

Epaimahaiak aukeratuko du, aurkeztutako lanen artean, lehiaketarako zeintzuk onartzen diren. Lan horiekin, erakusketa egingo da Leioako Mendibile Jauregiko erakusketa aretoan, 2017ko martxoaren apirilaren zehar.

## **8. EPAIMAHAIAREN ERABAKIA**

Erabakia publikoa eta atzeraezina da, eta martxoaren 6ko 13:00etan emango da, Leioako Mendibile Jauregian. Horretarako, prentsaurrekoa egingo da Jauregiko instalazioetan.

## **9. ERAKUSKETARAKO HAUTATUAK IZAN DIREN BAINA SARIRIK JASO EZ DUTEN LANAK ERRETIRATZEKO EPEA**

Erakusketarako hautatuak izanik SARIRIK JASO EZ duten proiektuak erretiratzeko epea 2017ko maiatzaren 9etik 18era bitartekoa izango da, Mendibile Jauregian bertan. Epea igarota, antolakuntzak ez du ardurarik hartuko aurkeztutako originalak entregatzeko. Oharra: lanak hartzeko ordutegia 11:00-15:00 eta 16:00-17:00 izango da.

## **10. SARIA**

Sari ekonomikoa Leioako Mendibile Jauregia Elkartek ordainduko du. Lanik eta hormairudi proiekturik onenerako saria HIRU MILA (3.000) EUROKOA izango da. Saria bi epetan ordainduko da: lehen MILA ETA BOSTEHUN (1.500) EUROAK saria irakurri eta entregatzeko ekitaldian ordainduko dira. Bigarren MILA ETA BOSTEHUN (1.500) EUROAK horma-irudia amaitutakoan ordainduko dira.

## **11. PROIEKTU IRABAZLEA AURRERA ERAMATEA**

Proiektuaren irabazleak horma-irudia egiteko zuzendaritza teknikoaren ardura izango du. Horma-irudia 2017ko apirilean egingo da. Beharrezko material, aldamio, lizentzia eta gainerako gastu guztiak Mendibile Jauregia Elkartek ordainduko ditu. Proiektuaren irabazleak lana margotzeko laguntzailerik behar izanez gero, Pintura Masterreko praktiketako ikasleak hartuko dira.

## **12. OINARRIAK ONARTZEA**

Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek eta epaimahaiak aurreikusita ez dauden arazoak edo egoerak konpontzeko hartzen dituen erabakiak onartzea eta ados egotea dakar.

## **13. KONTSULTAK**

Komisarioak, JOSÉ MANUEL LORITE EHU/UPVk esleituta.

Edozein kontsultatarako:

**Email: [jmlorite7@gmail.com](mailto:jmlorite7@gmail.com)**

Oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen edozein egoera lehiaketako antolakuntzak

ebatziko du egokien den moduan.